

# NAIDEREK AEDIPEK ANTOLATUTAKO KLIMA ALDAKETA ZIKLOAN PARTE HARTZEN DU, ERAIKUNTZAN ERALDAKETA JASANGARRIAREN BIDEAN.

*Posted on 17/03/2022 by Naider*

Category: [Albiste](#)



**Juan Iglesiasek, NAIDEReko Hiri Ekologia koordinatzaileak, datorren ostiralean, martxoak 25, Smart Cities webinar-ean parte hartuko du: Datuak jasangarritasunaren zerbitzura hirietan .**

Datorren ostiralean, martxoak 25, NAIDERek KLIMA ALDAKETA zikloan parte hartzen du, AIC sektoreko eraldaketa jasangarriaren bidean. AEDIPEk (Proiektuen Kudeaketa Integratuaren Espainiako Elkarteak) antolatutako ziklo honek klima neutraltasunaren helburuak lortzeko sektorearen eraldaketari buruz hausnartu nahi du.

EBko eraikuntza-sektoreak energia-kontsumoaren %40aren erantzule da, beste edozein sektorek baino energia gehiago, eta EBko energiarekin lotutako BEG isurien %36a da. Eszenatoki hori ikusita, gure hirietako ingurune eraikiaren eraldaketa beharrezkoa dirudi. Ziklo honen esparruan, gure buruari galdetzen diogu: Nola aldatuko dira gure hiriak? Zein elementuk balioko dute hiri-iraunkortasuna lortzeko palanka gisa? Nola lagundu dezakete datuek ingurumen-inpaktua murrizten?

Ez galdu. Webinarra zuzenean ikusi ahal izango duzu AEDIP webgunearen bidez erregistratuz hurrengo esteka honetan: [ERREGISTRATU](#)

